

San Frantzisko Euskal Herrian?

Ikusita daukagu orrialde hauetan frantziskotarrak Euskal Herrian zeudela 1220.eko hamarkadan; pentsa daiteke, gainera, San Frantzisko bizi zelarik gertatu zela hori. Baina San Frantzisko bera heldu ote zen Euskal Herriraino?

Horra eztabaidarik franko sortu duen galdera. Arantzazu aldizkari honen zuzendari izandako I. Omaetxebarria izan da, zalantzarik gabe, indarririk handienaz idazki ugarrizkoaren alde jardundakoa. Batez ere fraideen Kronika zaharrek eta A. López historialariak egindako lanen arrastoan eman zituen bere azalpenak.

Iturri zaharretan zer berri?

Ezaguna da nolako gogoia zuten Frantzisko Asiskoak Lur Santuetara eta mairuen herrietara joateko, haien artean martirioa ere irabazteko itxaropena baitzuen.

Horrela, Siriarako lehenengo ahalegina ustela atera zitzaionean, Iberiar Penintsula Marokora iristeko bide bezala ikusi zuen. Irten ere irten zen Bernat Anaiarekin Espainiarako (beti uste izan denez Santiago Bidea hartuz), baina "Espainiara heldu zenean... [Jaunak] gaixotasun bat bidalizion aurrera joan ez zedin", biografoak dioenez, "beste eginbeharretarako gordea baitzeukan Jainkoak" (S. Bonabentura).

Arrazoi teologiko eta guzti, albiste motz hori bakarrik da lehen iturrietan ageri dena, ondoko berriak legendekin nahasiak edo/eta askoz geroagokoak baitira (1327/37).

Albiste apur hauek, beren iluntasun eta eskasia gorabehera, ondoko literatura luze baten iturburu izan ziren: fraideak eta tokian tokiko San Frantziskoren zaleak beren gisara borobilduz joan ziren iturri haietan jasotakoa.

Legenda eta Kronika maiteak

Horrela, bi motatako testu berriak sortuko dira Erdi Aroan eta Modernoan ere: fraideek San Frantziskoren "bizitza" osatu nahirik idatzitakoak (XIV. mendetik hasita) eta tokian tokiko komentuen lehen orduetako historia moldatu eta edertu nahi zutenak.

Hemen bereziki bigarren horiek interesatzen zaizkigu, beroriek baitira frantziskotarrek aukeratutako herri berrietan erroto ziren istorio eta legendak (gurean ere halatsu gertatu zen). Ikustekoa da Euskal Herria besarkatu duten frantziskotarren Probintzietako Kronika zaharretan zenbat albiste ageri den herri bakoitzeke komentuen lehen uneak azaltzean. Hebrera (1703) edo Garai (1743) kronikariak mai-suak dira horretan, eta Kronikariek ziotenaren arabera, Zangoza ondoko Rocaforte, Iruñea, Tuterako edo Gasteizko komentuak behintzat San Frantziskok berak sortutakoak ziren. Tradizio gaz-



teago hau birbalaratzen egin zuen lan Omaetxebarriak.

Aipatutako nolabaiteko iturrietatik joan ziren sortzen tokian tokiko istorio zaharrak, mirarizko gertakariak, sarritan iturri, ermita edo mendi baten ingurukoak; historia lausotzen baldin bazuten ere, iragana margo goxozko lilaraz jantzen zutenak.

Horregatik, kontagai eta legenda horiek Euskal Herriko leku eta komentu frantziskotarrak argi maitagarri jantzi zituzten, Nafarroan bezala Gipuzkoan ere. Joandako mendeetan herritarrek edergarri horiekin ikusi zuten iragan hura, errealitate bezain amets bihurturik.

Gaurko historialariak

Euskal Herriko frantziskotarren Historia idaztean, A. Uribe historialari finak ez zituen kronika zaharretako duda-mudazko kontakizunak erabat albora utzi. Fineziaz, jaso egin zituen, ez historia egiteko baina bai iraganak herritarren artean eta Euskal Herriko hainbat lekutan ere indako oroigarri horiek beren lekuan uzteko.

Uribek, oro har, San Frantziskoren bidaiaria historikotzat edo ematen du (1988); baina, gero, ibilbideaz eta bidaiako harat-honataz ematen dizkigun xehetasunetan ongi daki zein balio historiko erlatiboa duten kronikarien esanek.

Legenda eta kronikek emandako zertzeladen arabera, San Frantziskok ibilbide guztiz nahasia eta ezinezkoa burutu zuen, Konpostelarako joanean bezala itzulerakoan; guztiz sinestezina, alegia. Donostia edo Ondarroa ere

agertzen dira San Frantziskoren ustezko ibilera haietan..

Hori horrela, eman diezaiegun begiratutxo bat XX. mendeko San Frantziskoren biografoei. López ahalegindu zen San Frantziskoren Konpostelarako bidaiaria haren froga historikoak metatzen (1914), eta denbora batez arrakasta izan zuen argibide ezezaguniko franko bildu zuelako; baina arrakasta ez da osoa izan. García Oro-k, López-en historialari hurbila izan zitekeenak, begirunez ikusi du haren ahalegina, baina, aldi berean, ondorio zehatzik atera gabe eta gauzak argitzeko ikerlan berrietara ere deituz.

L. Sarasola edo R. Manselli, beren aldetik, uzkur agertu zen eta da San Frantziskoren bidaiaria haren historikotasuna begiratzean, Zelano biografoaren albisteak oso motzak direlako, edo hark ez beste lehen orduko iturrik deus esan ez zuelako.

Orain-oraingoz, bada, esan dezagun ez dakigula (lekuko idatzi argiek frogatuta, behintzat) San Frantzisko hona iritsi zen ala ez. Kasu honetan, historia eta istorioak elkarren ondoan, baina berezita begiratu behar ditugu, beraz.

Gehiago jakiteko

OMAETXE BARRIA, I. (2002): *Los franciscanos en Euskal Herria*. Arantzazu: EFA.

SARASOLA, L. (1929): *San Francisco de Asís*. Madrid: Espasa-Calpe. 286-287.

URIBE, A. (1988): *Franciscanismo vasco-cántabro*. Arantzazu: EFA. 45-67.

Galderak eta oharak: 610273580.

Joseba Intxausti